

Egun on, eta ongi etorri Jasangarritasun Hezkuntzako 27. Topaketara.

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiot Iñaki Orberi eta hark zuzentzen duen Unamuno Institutuko komunitate osoari ospakizun hau hartzeagatik haien etxearen barnean.

Azaldu nahi dizuet gaurko ekitaldi hau Erronka Garbia programaren irizpideen arabera antolatuta dagoela, eta horrexegatik informazio laburra eskatuko zaizue ekitaldian, gure eragina ingurunean ebaluatu eta konpentsatu nahi dugulako.

Gizarte globalarentzako, klima aldaketa funtsezko erronka da, gizartearen egitura maila guztiak mugitzen ari dena, bizi modu eta produktiotik ekonomian zehar pentsamolde sakonetaraino, eta, datozen urteotan sakonago astinduko gaitu. Era berean, etengabeko aldaketan bizi den euskal gizartearen beraren erronka hezkuntza ere bada, hezkuntzaren bitartez oraina ez ezik etorkizuna eraikitzen baita: nolako hezkuntza, halako gizartea, eta, zalantzarik gabe, halako ingurumena ere. Eta, zer esanik ez, euskal hezkuntza komunitatearen erronka bada klima aldaketa. Xabier Lete olerkari bikainaren hitzetan euskal gizakiak irauten du hain zuzen:

“Indarrak ongi errotuz,
gure sustraiak lurrari lotuz”.

Hezkuntza lanabeza ezin hobea da gure sustraiak lurrari lotzeko. Halaber, gure indarrak ongi errotzea ezinbestekoa da denon etxea babesteko batzuen arduragabekeriaren aurrean aldaketa sakonaren garai hauetan, zeinean Gabriel Aresti idazle eta euskaltzale oroituaren hitzek adiera guztia berreskuratzen duten:

“Nire aitaren etxea defendituko dut.

Otsoen kontra,
sikatearen kontra,
lukurreiaren kontra,
defendituko dut”.

Bai, lukurreiaren kontra esaten zigun poetak. Richard Heinbergek, Estatu Batuetako unibertsitateko irakaslea eta Post Carbon Institut-eko partaideak, adierazi du zibilizazioa eusteko ingurumenak duen ahalmenari gizakiok sorturiko meatsuek gaintitzen dutela, gaur egun, zibilizazioaren beraren ahalmena egokitzeko eta irauteko. Heinbergek, denon ezaguna den Stern txostenak aipatzen du haren diskurtso eta idazkietan behin eta berriz, aldarrikatzeko klima aldaketaren ondorioak ekonomia global eta lokaletan neurri ikaragarrikoak izango direla, aldagai guztietan neurtezinak direla, eta, horrexegatik ere, ziurgabetasunak zuzentzen duela, une honetan, gizartearen norabidea.

Dakizuenez, duela aste gutxi Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak Change the Change nazioarteko konferentzia antolatu du, non atal bat eman zaion Jasangarritasunerako Hezkuntzari tresna moduan klima aldaketari aurre egiteko aldaketa garai hauetan. Hain zuzen, 27. Topaketa hau Konferentziaren zati bat da, oso egokia haren bitartez plano profesional hurbilagora eraman dezakegulako gure hausnarketa kolektiboa hezkuntza eta klima aldaketaren inguruan euskal markoan. Konferentzia horretan, zorionekoak izan ginen, ospe handiko beste adituen artean,

Nicholas Sternekin berak parte hartu zuelako, eta indar izugarria egin zion karbonotan ekonomia baxurako trantsizioaren beharrari: “eta gainera gehiago atzeratu gabe”, esan zigun. Sternekin agerian jarri du bat baino gehiagotan merkatu-ekonomiaren porrota klima aldaketari aurre egiteko garaian. Makro-merkatuek anonimoak direla dirudien arren, izen-abizen propioak dituzte atzean. Iraunkortasun hezkuntzaz aditua den Jose Manuel Gutierrez Bastidak haren idazkietan ongi adierazita utzi digun moduan, porrot hori batez ere politiko eta etikoa da. Bai, etikoa, balore etikoen porrota. Euskal Herri txiko honetan ikastetxeek, eskola komunitateek, Ingurugelak, Ingurumen Sailak eta Hezkuntza Sailak zer esan handia dute klima aldaketari aurre egiteko beharrezkoa den gizartearen aldaketa etikoaren inguruan.

Gizarteak, klima aldaketak eta hezkuntzak berak hiruki bat osatzen dute. Hain zuzen, klima aldaketa Ingurugelaren eta ikastetxeen erronka delako gaude gaur hemen, eta horrexegatik ongi etorri eman nahi diot Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatze Zerbizuko zuzendariari, Lucia Torrealdaireari.

Lucia Torrealdairei eskerrak eman nahi dizkiogu parte hartzeagatik topaketa honetan, eta horrekin batera, hitza eskaini nahi diot.

Luzia Torrealdaire, mesedez